

rantzaren agiriak Azkue hiztegiak eskaintzen dizkigu. *Enparatu*-rekin badu zer ikusirik. Baina, Arakistain debarrarena zalan-tzaz jartzekoa da, erabiltzen duen era berean behintzat. Berak baino lehen erabili zutenena fidagarriagoa da. Esate baterako A. Marichalar eta C. Manrique-k *Historia de la Legislación y recitaciones del Derecho Civil de España* (Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava), Madriden 1868.eko edizioaren 54. orrialdean zekarrenez: «A estos pusieron prudente remedio los reyes, nombrando cuatro jueces, que podemos llamar de *emparanzas*, con el cargo de reformar las fuerzas y agravios hechos por los reyes antecesores y sus gobernadores...» Horren xehetasunak Bonifazio Etxegaraik eman zizkigun *Eus-ker*a aldizkariko lan batean (ikus, «Algunas voces vascas usadas en el fuero general de Navarra», *Euskera*, VIII, 1927. urtekoa, 63-64 orrialdeetan): «*Emparanza* significa embargo, ejecución de bienes... Eta, «*emparar*, que vale tanto como embargar, secuestrar» eta kidekoak nola erabiltzen zituzten Aragoian eta Kataluñan.

Euskara jatortasunez eta esate aberatsez gorde nahi badugu, ez ote zaigu komeni Plazarentzat Plaza, bere era jatorrez erabil-tzea? Ala, *plaza-gizon* ordez *enparantza-gizon* erabili behar ote dugu?

* * *

PASAIAKO ANTXXO EZTA ZABAL.—Neurritz kanporakorik maiz egin da hizkuntzaz, baina *Pasajes Ancho* ezta A.B. dela-koak 1980ko abenduaren 7an *El Diario Vasco*-ren ohar batean, «Más frivolidades lingüísticas» izenburuz agertzen zuena, Pa-saia Zabal itzulpena emanaz. Ez.

Lekuizenez, *Antxo* zeritzan etxe batetik hartua du Pasaiako alderdi horrek bere izen orokorra. Gero, gaztelerako *Ancho* bezala jaso dena.

Argi dago pertsona izena zuela etxe harek, inoiz Anso eta maizago Sancho bezala agertzen den izen bera. Nafarroako arreegen garaitik era bat baino gehiagotara zabaldu zen gure erresumetan; baina, gaztelerazko *Ancho*-rekin zer ikusirik ga-bea.

* * *

G. BORROW ETA T. ETXEBARRIA.—Gure mende honen lehen partean Eibarren egosten zen langilieriarekiko gizarte-giroa interesgarria dugu gure historiarako, bereziki euskaldun langileak sindikalista eta sozialista ekintzenta zer nolako jarrerak hartzen zituzten ezagutzeko. Giro hura ezagutzeko libururik hoberena Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos* (México, 1968) deritzana dugu noski, naiz eta alderdi baten kidetzatik begiraturik egon. Gerragatik herbestaturik, Caracas-en, bere bizitzako azken urteetan idatzia da. Liburu ona, baina memoria hutsez aritzeak berakin dituen xehetasunerako kalteak ere nabari ditu, horren ondoriz zenbait huts egitez. Horietako bat da hemen azaldu nahi duguna.

Esan beharra dago Toribioren Biblia zaletasuna ez dela zalantzan jartzekoa. Hori ongi erakutsi zigun eibartarrera zenbait zati itzultzean, *Ibiltarixanak* (Zarautz, 1967) liburua leku-ko. Baina, aipaturiko *Viaje por el país de los recuerdos* liburuaren 102. orrialdean dionez: «unos libritos de perra gorda que un día compré a George Borrow, de paso por Eibar, que si no sabía el caló de los gitanos hablaba un euskera de Goi-erri suave y enjundioso: eran los evangelios y los salmos». Puntu hontan, ez dago dudarik, hariak gurutzatu zitzaizkion gure Toribiori, zeren G. Borrow, *The Bible in Spain*-en egilea, Toribio jaio baino sei urte lehenago hila bai zen. Hau da, G. Borrow 1881ean hil zen eta T. Etxebarria 1887an jaio. Beraz, Borrow-ek euskara zerbait bazekien ere, eta hala zion Oteiza medikuari San Lukas Ebangelioa (1838) itzularazi ondorean